


## 5. KANALAK

Kanaleei dagokionez, egokiena iruditzen zaiguna, sare sozialei gehienengo garrantzia ematea da. Gure bezeroen adina 40 urte baino gutxiagokoa denez teknologien erabilpena eta trebetasuna handiagoa daukate. Horregatik gure produktua saltzeko era online bidez izatea erabaki dugu.

Gure uste apalean, harreman egokia eta estua izatea bezeroekin garrantzi handia dauka beraz, erabaki dugu komunikatzeko era sare sozialen bidez izatea.

Gure idea garatzen hasteko, hainbat sare sozialetan kontu bat sortzea erabaki dugu. Horretarako zenbait inkesta begiratu ostean, gaur egun gehien erabiltzen diren aplikazioak honako hauek direla ikusi dugu:



Grafiko hau aztertu eta gero, agerian gelditu da gehien erabiltzen diren gazteriaren aplikazio nagusiak Tik tok eta Instagram direla eta helduenei begira Facebooka da.